

DIRU-SARRERAK

Enpresa bat sortzeko orduan, oso garrantzitsua da geure buruari hainbat galdera egitea. Esaterako, gure bezeroak zenbat eta nola ordaintzeko prest egongo diren, horiek izango baitira gure diru-sarrerak. Bi diru-sarrera mota daude:

- Ordainketa bakarraren bidezko sarrerak: bezeroak aldi bakarrean egindako ordainketatik eratortzen direnak.
- Ordainketa errepikarien bidezko sarrerak: zerbitzu edo produktu jakin bat erabiltzeko ala salmenta ondorengo euskarriaren truke bezeroak modu jarraian egiten dituen ordainketetatik eratorriak.

Diru-sarrerei dagokienez, lehenik eta behin gure bezeroak guk eskainitako zerbitzuaren truke zenbat ordaintzeko prest egongo diren galdetu behar diogu geure buruari.

Gure enpresari dagokionez, bizikletaz janaria norbaiti banatzen dugun bakoitzean, hark ordaindutako %30a guretzat izango da eta bestea tabernarentzat.

Herritarrek gure enpresaren berri izan dezaten, web gune bat diseinatuko dugu "JakiGo.eskaerak.com", bertan gure enpresaren helburuak eta bestelakoak adieraziz, baita ondoren azalduko dugun txartelaren berri emanez ere. Beraz, neurri batean, publizitateaz baliatuko gara irabaziak eskuratzeko.

Horrez gain, beste diru-iturri batzuk ere izango ditugu, adibidez, JakiGo Txartela. Txartel honek 10€ balioko ditu eta gu erosketa eramatera joandakoan Jakigo Txartela izanez gero, %5-eko beherapena izateko aukera emango zaie erosleei. Gainera, txartelaren ordainketa hilabetero egin beharko da, hau da, hilabetero ordaindu beharko dira 10€-ak gure enpresan beherapenak izatea nahi izanez gero.

Gainera, jendeak lana modu egokian egiten ari garela ikusten badu eta gure zerbitzua ahalik eta ondoen emateko ahalegin handia egiten ari garela ikusten badute, agian batzuetan propinaren bat ere utziko digute, eta hau beste diru iturri bat da gure enpresarentzat.

